

# Erdarazko relatibo esplikatibo mota bat euskaratzen

Mitxel Kaltzakorta Mentxaka

Euskaraz relatibo esplikatiborik ez-eta, erdarazko mota honetako esangura kausalekoak itzuli gura izanez gero euskarara, baditugu estruktura bi ezin aproposagoak gehienbatean: bata BAIT- aurrizkia eta, bestea, ETA partikula. Bata zein bestea egokiak direla frogatzeko oinarritzen da artikulugilea teoria-mailan BAIT- aurrizkiari buruz Koldo Mitxelena erranikakoan eta ETA partikularen gainean Luis Villasantek adierazitakoan, eta datu-mailan han-hemengo idatzizko eta ahozko adibideetan.

The relative explaining form does not exist within the Basque language; but in translating this form from the Spanish to the Basque language, when it has a causal meaning, we find two structures: the prefix BAIT- and the particle ETA. To show on a theoretical level that these structures are proper, the writer bases his statement, on the one hand, on what Koldo Mitxelena said about the prefix BAIT-, and, on the other hand, on what Luis Villasante said about the particle ETA. On the data level, the writer bases his explanation on some written and oral examples.

## 1. Sartaurrea

*Administrazioa Euskaraz* aldizkari-ko 13. zenbakian artikulua interesgarri bat ageri da Koldo Bigurik idatzia, “Erdarazko erlatiboan itzulpenak” izenekoak.

Bertan azaltzen du zelako buruhausteak ematen dituen gaztelaniazko erlatibo batzuk euskaratzeak, eta batez ere erlatibo esplikati- boak. Erlatibo mota honetako hiru adibide ematen ditu. Hona hemen lehenengoa:

El presidente, que se encuentra estos días de visita en París, ha declarado su apoyo a la política exterior de Francia

Badirudi erlatiboa erabiltzea (hau da, *Presidente, egun hauetan Paris bisitatzen ari dena, ...*) ez dela oso zuzena, edo nahasgarria dela, bi eratara uler litekeelako (bata: *El presidente, que se encuentra...*; bestea: *El presidente, el que se encuentra...*); eta bigarren kasuan presidenteen arteko bati buruz ari gara, ez Presidenteaz. Efektuaz ondo jabetzeko, *presidente* hitzaren ordean, ipini *nire osaba*, esate baterako, eta galde zeure buruari zein osabari buruz ari den.

Horra hor zelako problema aurkezten duen itzultzaileak: gaztelaniazko perpaus erlatibo esplikati- boak eman du euskaraz erlatibo apositi- bo bidez (... , *egun hauetan bisitatzen ari dena, ...*). Eta ez dagoela zuzen begitantzen zaio, euskarazko ordainak esangura bi dituela-eta gaztelaniaz: bata, perpaus esplikati- boarena (... , *que se encuentra...*, ...) eta bertzea, erlatibo apositi- boarena (... , *el que se encuentra...*, ...).

Eta gaztelaniazko erlatibo esplikati- boak itzultzearen korapilo hau, euskaraz erlatibo apositi- bo bidez ezin konpondu-eta, honetara segitzen du:

Bada, arazo hori albo batera utz dezakegu, erdarazko esaldia beste era batera antolatuz gero (betiere esanahia ezertan aldatu gabe, noski).

El presidente, durante la visita que está realizando estos días a París, ha declarado...

Eta euskaraz ere errazago irtenge zaigu bide horretatik. Ikus dezagun:

*Presidente, egun hauetan Parisen egiten ari den bisita, Frantziaren kanpo politikaren alde azaldu da.*

Ageri denez, euskaraz gaztelania- ren antzeko erlatibo esplikati- borik ez- eta, bertze egitura mota baten bidez konpondu gura du erlatibo esplikati- bo horren auzia.

Askotan eta askotan ez dago, ez, artean itzultzerik gaztelaniazko esaldi bat euskarara. Hori jakinekoa da. Baina gaztelaniazko erlatibo esplikati- bo hori, hots, “El presidente, *que se encuentra estos días de visita en París*, ha declarado su...”, esangura kausaleko- edo berau “kontestu honetan”, ez ote dago baliabide egokiagorik itzul- tzaileak erabilirikoa baino?

Aipaturiko erlatibo esplikati- bo bidez emaniko adibideaz gain, beste bi ere paratzen ditu itzultzaileak erlatibo mota eta esangura berekoak. Hiru erlatibo esplikati- bo egokiago itzul daitezkeelakoan nago, oker egon ez arren itzulirik. Izan ere, hiru adibideok euskaratze- ko artikulugileak ez du behin ere erabili beste baliabide bi –Koldo Mitxelena eta F. Luis Villasantek emanak–, egokiagozat eta zehatzagozat ditudanak.

Beraz, artikulua honetan erakutsi hutsa egin gura nuke baditugula euskaratzeko gaztelaniazko erlatibo esplikati- bo esangura kausalekoak- edo egitura bi gutxienez beren- beregiz-

koak. Baina ez dut zehaztuko irtenbi-  
deok nondik norako eremuan erabil  
daitezkeen.

Lehenengo eta behin gaztelaniazko  
relatibo motak ikertuko ditut: zenbat  
dauden eta euron artean zein diferen-  
tzia dauden nagusiki. Baina batez ere  
relatibo esplikatiboak eta bereziki  
esanahi kausalekoak, euskaratzai-  
learen adibideetako relatiboek duketen  
esangura berekoak.

Hurrena, relatibo esplikatibo esan-  
gura kausalekoak euskarara bihurtze-  
ko idatzita dagoenaren –edo dakidana-  
ren– berri emanen dut.

Jarraian, adibideak emango ditut  
azalduerikako teoria egiaztatze-  
ko: batzuk, idatzizkoak; beste batzuk, ahoz-  
koak.

Ondorik, ahaleginak egingo ditut  
hiru relatibo esplikatiboetako korapiloa  
askatzen.

Ohar gisa esan dezadan anitzetan  
kontestua eman beharra dagoela ondo  
ulertuko bada perpausa, eta, ondorioz,  
ontsa itzuliko bada. Eta hemen ingu-  
rumari barik ari gara aztertzen.

## 2. Gaztelaniazko relatibo motak

José Antonio Martínez-en arabera  
(1994: 220, 221) hiru relatibo mota  
daude gaztelaniaz: ohiko espezifikati-  
bo eta esplikatiboek gain, apositiboak.  
Baina gure perpaus ikergai mota hobeto  
aztertzekeo bestetako ez dut gura  
relatibo-sailkapena, itzuli beharreko  
perpausa egoki euskaratzeko bestean.  
Hona hemen gaztelaniazko hiru relati-  
bo motok:

### 1. Espezifikatibo edo murrizgarriak.

(1) Los alumnos que viven lejos llegan tarde.

### 2. Esplikatiboak edo ez-murrizga- rriak.

(2) Los alumnos, que viven lejos, llegan tarde.

### 3. Apositiboak.

(3) Los alumnos, los que viven lejos, llegan tarde.

Ez dago problemarik lehen motako  
perpausa euskaratzeko, eta mota hau  
ez daukadanez ikerkizun behar  
honetan, albora utziko dut.

Bigarren eta hirugarren motakoak  
interesatzen zaizkit, batez ere (2) mo-  
takoak, esplikatiboak.

Azter ditzagun relatibo mota biok,  
zer duten komun eta zer ez.

Bien arteko adostasunari dagokio-  
nez, biak daude koma artean, sekuen-  
tzia intzidentalak dira.

Desadostasunari dagokionez,  
diferenteak dira formaz:

*Esplikatiboak:* (2) ..., que viven lejos,...

*Apositiboak:* (3) ..., los que viven lejos,...

Adibideotan ikusten dugunez, rela-  
tibo apositiboak gurataezko du artiku-  
lua; esplikatiboak, ostera, ez daroa  
artikularik.

Badira beste desberdintasun batzuk  
ere, gaingiroki emanen ditudanak  
jarraian:

## 1. Relatibo apositiboak.

Relatibo apositiboak aurrekari edo antezedentea identifikatzea du funtzio-tzat, (3) esaldian behintzat. Perpaus honetan, «los alumnos» aurrekariaren referentea identifikatzen du «los que viven lejos» relatibo apositiboak, alegia, zein ikasle heltzen diren berandu.

Gaztelaniazko relatibo apositiboa honetara ekartzen dugu euskarara euskaldun guztiok-edo:

- (4) Ikasleak, urrun bizi direnak, berandu heltzen dira.

Hots, euskaraz ere relatibo apositiboa baliatzen dugu.

## 2. Relatibo esplikatiboak.

Esango nuke relatibo esplikatiboak adierazten duela, aurrekariaren komentario edo azalpen baloratiboaz gain, perpaus nagusiari buruzko esangura zirkunstantziakoren bat, gehienbategian. Ez ditut zirkunstantziak adiera guztiak –kausalezkoak, denbo-

razkoak, kontsesibozkoak,...– ikertuko. Esangura kausalezkoak soilik interesatzen zaizkit behar honetan, gure relatibo-ikergaiek esanahi bera-edo daukate-eta. Gainera, relatibo esplikatiboetan adiera kausala da nagusi, lehenago aipatu J. A. Martínez-ek (eta bestek<sup>1</sup>) adierazten duenez:

Como en los demás casos de unidades incidentales, también en las relativas el valor predominante es el “causal”:

(68) Yo, *que fui previsor*, me quedé en casa; (...) (71) Juan y yo, *que estuvimos presente*, podemos informaros; (72) Don Teopompo, *que también fue joven*, sabe que ni todo el monte es orégano, ni oro todo lo que reluce (OCF 32-33); El niño, *que es un águila*, nos sacará de dudas (VMD44O); (74) El otro hombre, *que era tímido*, sonreía ante cada requiebro y sorbía un poco de cerveza (VAT151-152); (75) La víspera de la llegada al puerto de Caracolí, *que era el término del viaje*, el capitán ofreció la fiesta tradicional de despedida (ATC217); (...) (ikus Martínez 1994: 242-243)

(...) de los valores circunstanciales señalados para el adjetivo “incidental”, la

---

1. Ondorik gaztelaniazko gramatikarik inportanteenetan-edo zer adierazten den relatibo esplikatiboei buruz, horren gaineko berri emango dut. Eta gramatikotan ageri diren adibideek esangura kausala-edo dutela erranen nuke:

“Juan, que es diligente, trabaja sin descanso”

(...) indica una cualidad propia y característica del mismo [Juan] (Real Academia Española 1977: 525).

“Los alumnos, que vivían lejos, llegaron tarde a la escuela.”

“Comimos la fruta, que estaba madura.”

(...) Con ellas expresamos que todos los alumnos llegaron tarde, y nos referimos a toda la fruta, explicando de ellos respectivamente la cualidad o circunstancia de que vivían lejos y de que estaba madura. (Gili Gaya 1972: 302, 303).

“Dios, que lee en los corazones, ¿se dejará engañar?”

(...) las explicativas añaden alguna particularidad que no modifica lo aludido por el antecedente... (Alarcos 1996: 331, 332).

“Los hijos de Miguel, que asistieron a la fiesta de fin de curso, resultaron heridos en un accidente de tráfico.”

(...) se usa como un medio de ofrecer información adicional sobre la situación descrita. (Hernanz & Brucart 1987: 146, 147).

relativa “explicativa” parece expresar sobre todo el de “causa”... (ikus Martínez 1994: 244)

Kontuan hartuta J. A. Martínezek esandakoa eta erakutsiriko adibideak erran dezaket gure adibidean, (2)an, «que vivían lejos» relatibo esplikati- boak ustez kausazko esangura duela «llegan tarde»-ri buruz, oso erraturik ez banago. Eta hona aipaturiko adibi- dea zelan itzultzen dudán, hurrengo atalean emanen dudana argiago:

1. Ikasleak, *urrun bizi dira-eta*, berandu heltzen dira.
2. Ikasleak, *urruiti bizi baitira*, berant/belu iristen dira.

Orain arte esanikoa kontuan hartu- rik, sarrerán azalduko relatibo espli- katibora jotzen badugu, hots, «...», que se encontraba estos días de visita en París, ... » sekuentziara, badirudi esan- gura kausala duela, betiere kontestu horretan.

### 3. Euskarazko Itzulbideak

Erdarazko relatibo esplikati- bo esan- gura kausalekoak zelan itzultzen ditu- gun euskarara adieraziko dut hemen, zeintzuk prozedura ditugun.

Baditugu bi irtenbide, aspaldi ema- nak. Fr. Luis Villasanteren *Sintaxis de la oración compuesta*-ra jotzen badu- gu (1976: 156 oh.), berton diosku:

(...). Obsérvese que este *eta* pos- puesto puede servir también para expresar ciertas oraciones relativas explicativas. Bien es verdad que adqui- ren cierto matiz causal, pero tal matiz es muy próximo a las tales. “Los estudian- tes, que vivían lejos (“como vivían le- jos”, “puesto que vivían lejos”), vinieron tarde”. *Ikasleak, urrun bizi ziren eta, berandu heldu ziren.*

Liburu berean K. Mitxelenak (Villa- sante 1976: 213 oh.) ohar bat egiten dio L. Villasanteri BAIT- dela eta:

(...) Lo que está claro es que intro- duce relativas *no restrictivas*, como dicen en inglés. En los ejemplos conoci- dos (“Los hombres que venían cansa- dos (y sólo ellos) entraron en casa / Los hombres, que venían cansados, entra- ron en casa”), el segundo podría muy bien traducirse por *gizonak, nekatuak baitzetozen, etxean sartu ziren*. En Echalar oí algo muy parecido a *etxe ori, motozikleta atarian baitago, apezarena da*.

Baditugu, beraz, perpaus relatibo esplikati- boak euskaraz emateko era bi gutxienez, biak ere jakitun handi bik adieraziak.

---

“La cara, que es el espejo del alma, no podrá engañarnos tampoco esta vez.”

(...) amplifican, explican el significado del antecedente y no es extraño que conlleven un matiz circunstancial (con frecuencia causal) (Hernández 1986: 122, 123).

(...) las relativas “explicativas” o “no–restrictivas” se corresponderían, en terminos generales, con el adjetivo “incidental”, pues, además de consistir en “incisos” entonativos, por un lado reclasifican (no subclasifican) a su “antecedente”, y por el otro lado, con mucha frecuencia, permiten expresar algunas significaciones “circunstanciales” (“causa” y “concesión”, parece que nunca “condición”) respecto de lo dicho por la oración principal (Martínez 1994: 242).

(...) No todas, pero sí muchas de las significaciones o matices “circunstanciales” parecen aflorar en los segmentos con función incidental: se trata de significaciones asociados a la relación “causa- efecto”, es decir, la significación “causal”, la “condicional” y la “concesiva”, además de la “temporal”, que acaso sea la matriz de todas ellas (Martínez 1994: 231, 232).

## 4. Adibideak

Ikusi behar da K. Mitxelenak eta Fr. L. Villasantek adieraziriko euskarazko baliabideak ea praktikan jazotzen diren. Horretarako, idatzizko eta ahozko adibideak emanen ditut, inorenak eta neureak.

### 4.1. Idatzizkoak

Jesus Maria Agirre Bereziarren *Euskal Gramatika Deskriptiboa* liburutik (1991) atereak. Mordoxka ageri da Lehen Ataleko (liburuko) 674. eta 675. orrialdeetan. Nik bi baino besterik ez ditut paratuko:

“Altxatu zen Tomas, ondo irakatsia baitzuten, eta urrezko kopa jaso...” (*Printzea eta eskalea*, J. M. Zabaleta, 70)  
“Lord Hertford, bihotz samurrekoa baitzen, gustora zegoen bere ilobak zioenagatik” (ib., 109)

Ilari Zubirik eta Entzi Zubirik eginiko *Euskal Gramatika Osoa*-n (1995: 679). Hona hiru:

Umeak, oso nekatuta **bait**zeuden, berehala lokartu ziren.  
Esapide hori, jende askok ezagutzen ez **baitu**, oso jatorra da.  
Ikasleak, ordura arte isil-isilik egon **bait**ziren, oihuka hasi ziren.

Piarres Larzabalek bere *Ipuin eta Ixtorioak* liburuko (1996: 92):

Gure etxea, patar baten kaskoan baitzen, errebidetik kilometra on batean, behin bazituen bide hortan garraiatzeko  
...

### 4.2. Ahozkoak

Mayi Ariztia-ren *Amattoren uzta* (1982: 10) Iparraldeko ipuinak dira, idazleak entzun bestean jaso-idatziak.

Ematen dio, hari, ondotik segitzen baitzion goseak, bertze laurden bat.

Hona hemen neure batzuk:

- (5) Nik, Lekeitiokoa (naiz)-eta, lekeitiarrez egiten dut.  
Jonek, dirurik ez (dauka)-eta, ezin du autorik erosi.  
Agustinek, autoan arinegi ibiltzen da-eta, derrigor eduki behar stripua.  
Maite, loteria tokatu (zaio)-eta, harroaren harro dabil.  
Kepa, bere gogoko neskaekin ezkondu (da)-eta, eztitan dago.

Ikusi ditugularik K. Mitxelena eta L. Villasantek zein irtenbide eman dituzten relatibo esplikatibo esangura kausalekoak-edo itzultzeko eta han-hemengo idatzizkoa-ahozko adibideak, itzuli gura izanez gero 2. puntuan J.A. Martínezek paraturiko erdarazko relatibo esplikatiboko adibideak eta 2. atze-oharreko gaztelaniazko hainbat gramatikalakoak, ez dut uste problemarik dagoenik BAIT- eta ETA bidez egiteko.

## 5. Korapiloa askatzen

Behin adieraziz gero zelan itzul daitezkeen gaztelaniazko relatibo apositiiboak zein esplikatiboak, askatzen itzul-tzaileak bere artikuluan emaniko hiru adibideen korapiloa askatzen ahaleginduko naiz.

Oraturik sarturrean emaniko esaldiari, hots, «El presidente, *que se encuentra estos días de visita en París*, ha declarado su apoyo a la política exterior de Francia»-ari, aurrerago esaniko moduan, relatibo esplikatiboak esanahi kausala-edo dauka perpaus nagusiari buruz. Eta era bi hauetan emango genuke euskaraz:

1. Presidentea, egun batzuetan Parisen bisitan dago-**eta**,...

2. Presidentea, egun batzuetan Parisen bisitan **baitago**,...

Bestalde, artikulugileak gaineratzen du:

(...). Efektuaz ondo jabetzeko, *presidentea* hitzaren ordean, ipini *nire osaba*, esate baterako, eta galde zeure buruari zein osabari buruz ari zaren.

«Presidentea» barik «nire osaba» paratuz gero ere, korapiloak askabide erraza daukalakoan nago. Esate batean:

Nire osaba, *Lekeitiokoa*, egun batzuetan Parisen bisitan dago-eta,...

Eta osaba hori nahikoa identifikatuta ez badago, *Lekeition osaba* bat baino gehiago-eta, perpaus relatibo apositibo bat txerta dezaket:

Nire osaba, *Lekeitioko honen kaletan bizi dena*, egun batzuetan Parisen bisitan dago-eta,....

Euskaratzaileak beste relatibo esplikatibo bat ere itzultzen du artikulua be-  
rean:

(18) Ayer se produjo un robo en el Museo Guggenheim de Bilbao. Los ladrones, que robaron una estatua de Oteiza valorada en 100 millones, se hicieron pasar por trabajadores de la empresa.

Erlatiboarekin itzuli nahi izanez gero, honela geratuko zaigu:  
*Atzo lapurreta gertatu zen Bilboko G. Museoan. Lapurrak, Oteizaren 100 millo-  
pezetako balio zeukan eskultura bat eraman zutenak, garbitzaile gisa azaldu ziren.*

Zer esanik ez, itzulpena traketsa da, besteak beste osagai gehiegi pilatu dituelako, edo ez dituelako behar bezala kokatu:

*Atzo Oteizaren eskultura bat lapurtu zu-  
ten Bilboko G. Museoan garbitzaile gisa  
azaldu ziren lapur batzuek. Eskulturaren  
ustezko balioa 100 pezetakoa da.*

Azken itzulpen hau, esan barik oker dagoenik, badago, nire irudiko, egokia-  
go ematerik adierazi ditudan baliabi-  
deen arartez; laster egingo dudana.

Eta aurreko itzulpena badakikegu zergatik dagoen trakets nagusiki: rela-  
tibo apositiboa erabili duelako euska-  
raz gaztelaniazko relatibo esplikatiboa  
itzultzeko.

Trakestzat jotako euskarazko esaldi horretan relatibo honek

(...) Lapurrak, Oteizaren 100 pezetako balioa zeukan eskultura bat eraman zutenak, (...)

ez dauka gaztelaniazkoaren errana-  
hi bera. Izan ere, euskarazkoa relatibo apositiboa da; erdarazkoa, oster, re-  
latibo esplikatiboa.

Bestela erranik, honako ordaina du euskarazko relatibo apositiboak:

(19) Los ladrones, **los** que robaron una escultura de Oteiza valorada en 100 millones de pesetas, se hicieron pasar por trabajadores de la limpieza.

(18)a eta (19)a esaldi bi dira diferen-  
teak. Izan ere, relatibo esplikatiboak perpaus nagusiko aditzaren zirkun-  
stantzia kausala-edo adierazten du; oster, relatibo apositiboak identifikatu baino besterik ez du egiten aurrekaria edo antezedentea, esaldian «lapurrak». Eta trakestzat jotako euskarazko rela-  
tibo apositiboa honetara parafrasea daiteke euskaraz eta erdaraz:



Lapurrak, Oteitzaren 100 milioi pezetako balioa zeukan eskultura bat eraman zutenak **soilik**, garbitzaile gisa azaldu ziren

Los ladrones, **sólo** los que robaron una escultura de Oteiza valorada en 100 millones de pesetas, se hicieron pasar por trabajadores de la limpieza

Esaldiotan, euskarazkoan zein erdarazkoan, relatibo apositiboa erabil-tzeak ez dauka funtsik, aurrekaria identifikatzeko soilik balio du-eta. Izan ere, testuan ez daukagu arrazoirik horretarako, «lapurrak» identifikatzeko alegia. Eta eginez gero, egin den legez, ez ditugu identifikatzen lapur guztiak baino jakin batzuk soilik.

Hortaz, kontuan hartuta relatibo esplikati-boei esandakoa (18) esaldia honetara itzuliko nuke:

(20) Atzo lapurreta gertatu zen Bilboko G. Museoan. Lapurrak, *Oteizaren 100 milloi pezetako balioa zeukan eskultura bat eraman zuten-eta*, garbitzaile gisa azaldu ziren.

edo

(21) Atzo lapurreta gertatu zen Bilboko G. Museoan. Lapurrak, *Oteizaren 100 milloi pezetako balioa zeukan eskultura bat eraman baitzuten*, garbitzaile gisa azaldu ziren.

Itzultzaileak artikuluan ematen digun hirugarren relatibo esplikati-boari dagokionez

Ondoko adibidea ere kazetaritzakoa izan daiteke (hizkera berezi honetan, labor beharrez, erlatiboa oso erabilia dela esan behar da), eta, ikusiko dugun

bezala, perpaus erlatiboaren ordezenborazkoa jar zitekeen:

(22) El avión, que se disponía en esos momentos a aterrizar, fue abatido por un misil.

Edo:

El avión fue abatido por un misil cuando se disponía a aterrizar.

Eta euskaraz

*Hegazkina, lurra hartzera zihoala, misil batek suntsitu zuen.*

Artikulugilearen itzulpenari zuzena deritzat, baina egokiago direlakoan nago nik proposaturiko ondokook:

(23) Hegazkina, lurra hartzera zihoan-**eta**, misil batek suntsitu zuen

edo

(24) Hegazkina, lurra hartzera **baitzihoan**, misil batek suntsitu zuen

## 6. Konklusioa

Amaitzeko eta laburtu bat emanez esanikoari:

1. Nire ustez erdarazko relatibo esplikati-bo esangura kausalekoak-edo euskaraz ematen dira egokien BAIT-aurrizkia eta ETA partikularen bitartez, gehienbatean<sup>2</sup>.
2. Gaztelaniazko relatibo apositiboak euskaraz ere relatibo apositibo bidez adierazi ohi dira.
3. Relatibo apositiboek, artikuluhonetan erabiliriko adibideetan behin-

2. Bertzenaz, ahaleginak egin, irakurle, itzultzeko 2. apartaduan J. A. Martínez-ek emaniko adibideak eta gainerako gramatiketakoak (ikus 2. atze-oharrean).



tzat, aurrekaria identifikatzeko funtzioa dute, hots, aurrekaria nor ote den edo nor ote diren zalantza aienatu eragiteko. Eta ez dute esangurakausalik, relatibo esplikatiboek bezala.

4. Sarturrean esandako legez, artikuluhonetan BAIT- eta ETA irtenbideei buruzko azaldu hutsa egin dut, baina bata eta bestearen bidezko 4. puntuko euskarazko adibideak ikusirik, ez dirudi erabil-eremu bera dutenik. Interesgarria litzateke eremuok aztertzea eta zehaztea.

## Bibliografia

- Agirre J. A., (1991): *Euskal Gramatika deskriptiboa*, Labayru.
- Alarcos, E., (1996): *Gramática de la lengua española*.
- Ariztia M., (1982): *Amattoaren Uzta*, Elkar.
- Gili Gaya, S., (1972): *Curso Superior de Sintaxis Española*, Vox.
- Hernández, C., (1986): *Gramática funcional del español*, Gredos.
- Hernanz, M. L./Brucart, J. M., (1987): *La sintaxis*, Crítica, 7.
- Larzabal P., (1966): *Idazlanak V. Ipuin eta ixtorio*, P. Xarriton-ek paratua, Elkar.
- Martínez J. M., (1994): *Cuestiones marginadas de gramática española*, Istmo.
- Real Academia Española, (1977): *Esbozo de una nueva gramática de la lengua española*, Espasa-Calpe.
- Villasante L., (1976): *Sintaxis de la oración compuesta*, Arantzazu.
- Zubiri I., Zubiri E., (1995): *Euskal Gramatika Osoa*, Didaktiker.